

Noaia!!



Irailaren 22an,
Autorik gabeko eguna

70 urte eta gero herritarren omenaldia jaso dute

Inoiz ez da berandu



**San06
Praixku**

Jar ezazu
zure publizitatea
Noauaren
San Praixkuko
ale berezian

www.noaua.com

Albisteak edizio jarraituan

Zorion-agurren tartea

Eztabaida foroak

Agenda

Zerbitzuak

Eguraldia

Aldizkaria, on line

Usurbildarrentzat eginiko webgunea

euskara ikasi
æk ren eskutik

**ETUMETA æk
EUSKALTEGIA**

- Maita guztiak • EGA • Alabolaizoa
- Hizkuntza perfilak • Euskara agiriak

Matrikula ordutegia
11.00-13.00 • 18.00-20.00

**USURBILGO UDALAREN
LAGUNTZAZ**

Kale Nagusia, 45 behean
USURBIL • ☎ 943 37 20 01

Txirrikitutik !!

1 987. urtea oso garrantzitsua izan zen herriko rock mugimenduan. Herriko zenbait gazte, entzule pasibo izatetik musika egitera pasa ziren, herriko lehen rock talde euskalduna sortuz: **TXAMUTO**. Urtean zehar hilabete batzutan Kultur Etxean entsaiatzen aritu ondoren 1987ko urriaren 10ean Txamutok bere lehen kontzertua eskaini zuen Akerra Gaztetxean, Aginagako San Praixkutan. Txamuto rock taldeak eragin handia izan zuen herriko rock mugimenduan, euskaltzaletasuna eta herrikoitasuna itsatsiz mugimenduari. Sekulako arrakasta izan zuten herrian, kontzertu mordoa eskainiz. Euskara hutsez abesten zuten eta maketa ere grabatu zuten. Herriatik kanpo ere hainbat kontzertu eskaini zituzten, beti ere garaiko herri dinamikari loturik. 1989ko ekainean eman zuten azken kontzertua eta jarraian taldea desegin zen. Argazkian Txamuto rock taldeko partaideak: Josu Rekondo, Xabier Kamino, Jexux Agirresarobe eta Jon de Miguel.

Zaloe Arnaiz Ibarguren
 zaloe@usurbil.com



Txamuto rock taldeko partaideak. 1987. Kaleberri Argazkia: Jakoba Errekondo

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 Tlf: 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zaloe Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloe Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Aritz Gorriti.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORJETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZeko ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

AUTORIK GABEKO EGUNA _____ **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN _____ **6. OR.**

SAN PRAIXKU JAIK, BEGIBISTAN _____ **8. OR.**

Datorren asteburuan hasiko dira San Praixku jaiak. Egitarauaren ekitaldi aipagarrienak nabarmendu ditugu ale honetan.



OMENALDI HUNKIGARRIA _____ **12. OR.**

AMADOR GRANADO, MUNDIALA _____ **15. OR.**



Gipuzkoako
 Foru Aldundiak
 diruz lagundutako
 aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



NEREA ZINKUNEGI

Irailak 5, kaketan plost!!

Sukaldeko mahai borobilaren inguruan eseri naiz Sudako azken arrastoek permititzen duten etxeko arropaz atondua; galtza motz lanparoidunak, XXL kamixeta manga luzea eta patatadun galtzerdiak kasu, txankletak lurrean, abilidadea behar baita galtzerdiekin janzteko. Euria ari du, eszenatoki ezin hobea zerbait idazteko.

Zorua ni, Ladoseko dokumental bati begira geratu naiz aza moduan, bukatu den arte. Gero, zorua ni, berriez ere, musaren zain eta musik ez.

Mahai gaineko trasteriei begiratu bat eta ARGIAko egutegiarekin topatu naiz niri begira. Abuztuak 26, gai-xua!!! Egunean egunekoa kentzeko arterik ez, esan diot nire buruari.

Kolpetik gaur arteko orriak kendu dizkiot, irailak 14, eta banaka-banaka mahai gainean zabaldu ditut atzekal-

dean datorren gertakaria irakurri ondoren. Ez da erraza izaten batzuetan, idazteko gaia topatzea.

Irailak 4, eta gibelean irailak 5eko gertakaria; "1989ko irailaren 5ean Ben Johnsoni mundu errekorra kendu zioten". Atletak, antza denez, "lasterketarako baimendu gabeko sustantziak hartu zituen" eta hau dela eta egingdako marka, domina eta prestutasuna kendu zizkieten gizonari.

Dopinari buruzko juiziorik egitera ez noa, utzi deza-gun kaka bere gorotzean, nahastu gabe. Baina, zer egingo dugu historian zehar alkoholpean eta beste hainbat baimendu gabeko sustantziapen idatzitako liburu zoragarri, margotutako pintura miresgarri, konposatutako abesti mitiko eta hainbat eta hainbat dopatutako gertakarekin?

Ainhua Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas

Hemeroteka

Ez emakumeen bizkar

Ez ikusiarena egin. Hori da azken bi Urteotan Hondarribiko alardean tradizionalen leloa. Jaizkibel konpainia-koak ez dira existitzen. Ez dira eurak ikustera joan. Hori garbi utzi nahi dute. Eta horretarako hesi beltza altxatu behar izan dute. Zergatik? Herriko jendeak, eta batez ere herriko neskatilek, ikusiko luketelako bi alardeetan era guztietako jendea dagoela, aukera politiko eta sexual guztietakoak, eta ez dela ezer gertatzen. Badakite horrela normalizatzen direla gauzak. Baina, halakorik ez dute nahi, eta, halabeharrez, hesia paratu behar dute. Iaz Ixabel Alkainek berak horixe esaten zuen, desfilea amaitu berri-tan: «Lehen gai ziren begiak ixteko; orain hori ere ez, hesi bat jarri behar dute gu ez ikusteko. Ikusten gaituztenean, ordea, gurekin parte hartu nahiko dute».

Alarde tradizionalaren aldekoak ez dira harresia altxatu duten bakarrak, ordea. Herri honetako alderdi politiko eta agintari askok ere, aspaldi itxi zituzten begiak, Irun eta Hondarribian gertatzen ari dena ez ikusteko, eta, noski, euren

erantzukizuna ezkutatzeko. Izan ere, nola da posible iaz gertatutako guztia atzo berriz ere errepikatzea? Zer aurrera-tu da? Zer egin dute erakundeek eta alderdi politikoek halakorik eragozteko? Deus ez. Lehenbailehen neurririk hartu ezean, plastiko beltzaren diskriminazioa tradizio bihurtzeko arriskua dago.

Garbi dago neurriak hartzea, besteak beste, erakundeei dagokiela. Eusko Legebiltzarrak berea jarri duela diote Emakundek eta arartekoak Berdintasunerako Legea onartuta. Legea badago, bai; baina zertarako balio du betetzen ez bada? Sarri asko entzun izan dugu Jaurlaritzaren bozeramaileen ahoe-tatik legea bete beste erremediorik ez dutela, esaterako, Alderdien Legeari dagozkion kontuetan. Irun eta Hondarribiko alkateak ez dira legea betetzen ari. Plastiko beltza jartzea bai-mentzen dute, baita Ertzaintzak ere. Inork ez du kentzen. Zer ordain jasotzen dute, ordea? Deus ez. Herri honetan emakumeen eskubideen zapalkuntza dohainik ateratzen da. Garbi dago auzi

elektoral oso garrantzitsua izan dela alardeen auzien bilakaeran, alkatetzak baitaude jokoan. Botoen gehingoaren blindajea baliatu da udal mailako politi-kagintzan, baina onartezina da boto gosea emakumeen eskubideei muzin egi-nez ase nahi izatea.

Arazo honen aurrean ez ikusiarena egi-ten ari gara. Atzo, noski, gaitzespen hitzik ez. Erreakziorik ez. Erantzukizun eskerik ez. Guztiak mutu.

Atzo, lehen aldiz, Hondarribiraino joan zen Jaurlaritzako sailburu bat, Jaizkibel konpainiari babes ematera. Emakumea, noski. Garoa Lekuona kapi-taina agurtu, eta hantxe gelditu zen, arar-tekoa, Emakundeko zuzendaria, Berdintasunerako defendatzailea eta beste legebiltzarkide batzuk bezala. Desfilearen amaieran azaldu ziren berriz. Zergatik ez ziren manifestazioan joan gainerako guztiekin batera?

“Analisia”, Agurtzane Solaberrieta
(Berria, 06-09-09)

Irailaren 22a, Autorik gabeko eguna

Mugikortasun iraunkorren astearen barne Autorik gabeko eguna ospatzen da urtero irailaren 22an. 1998. urtean ospatu zen lehen aldiz, Frantzia eta Italian. Ekimenak izan zuen arrakasta ikusita, Europako Ingurumen Komisarioak egun hori bere egin zuen. Urtetik urtera geroz eta udal gehiagok bat egiten dute Europa mailan ospatzen den ekimen horrekin. Norbere autoa zentzuz erabili beharraz jabetzea da helburu nagusia. Leku batetik bestera mugitzeko garraio bide alternatiboak erabiltzea bultzatu nahi da. Aurtengo leloa, "Klimaren aldaketa".

Irailaren 22an ospatzekoa den Autorik gabeko egunaren bezperatan, Gipuzkoako bide gorriek errepideen maila izango dutela jakinarazi du Aldundiak. Errepideek duten araudi beretsua onartuko du bidegorrientzat ere. Bidegorri sarea bultzatu eta ohiko garraio bideak baztertzea nahi dute. Horrekin batera, garraio bide sarea erakitzen jarraitu nahi dute. 74,6 km eginak dituzte. Legealdia amaitzerako herrialdean eraikitzeak diren 357,2 kilometro bidegorri saretik beste 44,6 kilometro egin nahi dituzte.



IAZ BEZALA, AURTEN ERE TXOKOLATEA BANATUKO DA AUTORIK GABEKO EGUNEAN.

Autobusa doan eta bizikletak zozketan

Irailaren 22an, Autorik gabeko egunean, honako ekitaldiak antolatu dira: 17:00etan txokolatada Askatasuna plazan. Xabi Tellok egin eta Udarregi ikastolakoek banatuko dute. Ondoren buruhandiak, Zumarteko txistulari eta trikitilariak girotuta. 19:30ean bi bizikleten zozketa kiroldegi aurrean. Arratsalde osoan zehar, puzgarriak frontoi atzean. Kaleak itxita izango dira. Eta egun osoan zehar, autobusa doan. Horretarako, tiketa erakutsi beharko zaio udaltzaingoari eta dirua itzuliko da.

Zahar Etxe berria

Artzabal baserria zahar etxe berri bat eman du udalak. Lanak kontratatzeke espediente onartu eta lizitazioari hasiera ematea erabaki zen irailaren 12ko ezohiko udalbatza plenoan. Era berean, Jaime Abalos arkitektoak idatzitako proiektuari onespina eman zitzaion. Datorren alean, xehetasun gehiago emango ditugu.

Euskaltegian matrikulatzeko garaia da

Euskara ikasi edo hobetu nahi duten gurasoentzako laguntza bereziak eskaintzen dituzte Buruntzaldeko udalek. Usurbilgo kasuan, euskaltegiko matrikularen %80a udalaren dirulaguntza bidez berreskuratzeko aukera dago.

Horretarako, udalak dirulaguntza-deialdia egiten duenean, epe barruan, eskaera egin behar da. Beharrezkoa da

baldintza hauek betetzea:

- Usurbilen erroldatuta egotea.
- 12 urtetik beherako haurra edukitzea.
- Ikasturtean zehar %80ko asistentzia eta aprobetxamendu ona izatea.

Informazio gehiago: Udal Euskara Zerbitzuan, 943 371 999. Etumeta Euskaltegian, 943 372 001. euskara.usurbil@udal.gipuzkoa.net



ETUMETA EUSKALTEGIA ZUMARTE
ESKOLAREN PAREAN TOPATUKO DUZU.

TXOKOALDE

KOLDO HUEGUN

Ingurutik hasita



A skorentzat madarikatua, oporren bukaera, ikastolara itzulera, basoko zuhaitzen hostoak lurrera... eta politika ikasturtearen hasera.

Dena aldapa gora, ze, nahiz eta udaran oporrik izan ez dugunontzat irailak horrelako gusto txarrik ez utzi, bai aurten eta aurreko urteetan hasitako politika ikasturteak goragalea ematen digu.

Uda pasa da eta denak oso gustora daudela ematen du, ETA tre-guan dago, sekula baino bisitari gehiago Euskal Herrian, Astillerok ez du Kontxa irabazi... baina ikasturtearen hasiera honetan memoriari astindutxo bat eman eta ea alda daitekeen zerbait topatzen dugun gure inguruan.

Zubietan kartzela berria eta erraustegia, ia Andatzeko muturreraino autopista, piper soro guztien inguruak zaborrez beteta. Urrutixago begiratuta, presoak gose greban, ilegalizazio bati esker gaur boterean daudenak ilegalizazioaren aurka hitz eginaz, aurpegia zuritzen, herri honen pakea nahiz ez duten milaka bizkarzain eta abar bazterrak nahasten, Ertzainak langileak jipoitzen. Agian guzti horretatik has gaitezke. Hasi behintzat.

Gaia aldatuaz eta tartetxo hau aprobetxatuaz, Erroizpe elkarteko bazkideei urriaren 8an urteko Batzar Orokorra izango dugula abisatu nahi diet. Batzarraren lehenengo deialdia goizeko 11:30ean izango da eta 12:00etan bigarrena.

KALEBERRI

ANA URDANGARIN

Emakumeak frontoian nagusi



Hementxe gaude ba betiko martxan oporren ostean jotake berriro ere lanean! Batzuk indar berri-tuta etorriko zineten oporretatik besteok aldiz oraindik egiteko ditugu! A ze txollosa eh! Espero hala ere denok ederto pasa izana!

Bada, halere, jo ta ke dabilenik oporrei kasu handirik egin gabe. Badira hainbat hilabete erreparatu nituenetik hona eta sekulakoa iruditzen zait honelako sasoi edukitzea, izan ere, ez da batere erraza eta jarraipen batekin zerbait egiteko ohitura izatea.

Eta galdetuko duzue ea zertan nabilen berriketan ezta? Goiz askotan (ez dakit ze maiztasunarekin) elkartzen dira gure herriko hainbat emakume eta batzuetan gizonzakeen bat ere tokatu zait herriko frontoian jotake raketan ibiltzen direnak; eta zera bururatu zait, zergatik ez da 2007ko Santixabeletako honelako txapelketaren bat edo antolatzen? Ze kuadrila honi irabazteko norbaitek egin beharko lioke apustu eta pretestu. Honekin beste horrenbeste jende preparamen hasi beharko litzateke txapelketa horretarako.

Egia da xelebrea dela baina askotan honelakoetatik sekulako pikeak egiteko aukerak atera litezke. Oraindik urruti daude hurrengo urteko jaiak baino programan sartzeko proposamen polita iruditzen zait. "Raketa edo pala pikea".

Dena den, animo handiak bidaltzen dizkiet goizetan elkartzen den emakume eta gizon kuadrillari izan ere poza ematen du-eta honelako martxarekin ikusteak.

KALEZAR

MADDI GALBETE

Kurtso hasiera, kontzertuak...

Kaixo denoi! Zer moduz? Eguraldia goibel-tzen hasi da, zuhaitzetako kolorea aldatzen, hosto gutxi batzuk erortzen... batzuk ikastolara, beste batzuk lanera... oporrak atzean, kurtso berria aurrean... Esaldi hauek irakurri eta nagikeria pixkat sartzen zaigu gorputzean eta bihar berriro ere 6:30ean, 7:00etan, 8:00etan edo lehenago oraindik! Jaiki behar dugula pentsatzean nagikeria areagotu egiten da.

Eta gure auzoa ere, gainontzeko herriaren antzera dabil, goibel xamar, hasten bezala. Hala ere, batzuk hasi baino lanean jarraitzen dute. Izan ere, oraintxe pasa dira Santueneko jaiak eta bertan gure herriko taldeetako batek jo du, "Mendeko Itxuak" hain zuzen ere eta aipatzekoa iruditzen zait urte honetan zehar egin duten lana.

Kalezarko haurtzaindegian dauden lokaletan gogor entzun ditugu bolada honetan entsaiatzen, bai beraiek eta baita inguruan dauden beste talde batzuk ere. Eta emaitza nabarmena ikusi dugu Santueneko kontzertuetan. Ea hemendik aurrera orain arte bezain gogor entzuten ditugun entsaiatzen, horrelako talde batek merezi du eta!

Oraingoz, hauxe da guztia, animo guztioi, beharko dugu eta! Lehenengo egun hauek lasaitasunez hartu eta eta ahal duzuen neurrian behintzat gozatu. Eta batez ere, zoriontsuak izan.



ATXEGALDE

AINARA BORDAGARAI

Gastuak murrizten lanak

Jadanik uda amaitzeaz dago eta bakoitza bere lanera bueltatzeko garaia iritsi da. Batetik, ikasleak ditugu, unibertsitateko azterketak buru belarri prestatzen, gaintzeko esperantzarekin, bestetik haurrak ikastolara hasiak dira eta azkenik langileak betiko eguneroko aspergarria.

Hau guztia, gure auzo txiki honetan asko nabarmentzen da autobusaren joan etorriak jendez beterik ikusten baitira abuztuan ez bezalaxe. Ikastolako haurrak berriz ere martxan hasi direla gauza nabarmena da gure auzoan.

Honekin batera, iraila hilabete gogorra dugu: gastuak murrizteko garaia uda ostean egin ditugun oporrak direla eta... Izugarritzko gastuak sortzen dira eta orain berriz ere dirutza handia xahutzen da; haurren liburuak, motxila berria, agenda... Orduan eta gehiago pentsatu orduan eta buru hauste handiagoa izan ohi da. Irailarekin batera beti sortzen dira helburu berriak; "kirola egingo dut", "kurtso honetan izena emango dut"... Eta beste zenbait helburu ez ditugunak betetzen.

Beste batzuk aldiz, uda guztia lanean igaro ondoren bidaia agentziek eskaintzen dituzten beherapenak aprobetxatu eta izugarritzko bidaia zoragarriak egiten dituzte. Urteak urtera gehiago ikusten da jendeak iraila eta urria bitartean bidaia atsegin duela, izan ere, alde handia egoten baita abuztuko eskaintzen prezioen eta irailatik aurrerako eskaintzen artean.



SANTUENEA

PAKO AGUDO

Festetan blai!



Aurten ere auzoko jaiak joan zaizkigu. Hasiera Akezagarria izan genuen euria zela eta. Pena izan zen argentinar dantzariak lokalean sartu behar izatea, ikuskizun guztia ezin izan ziguten erakutsi baina, zerbait ikusteko aukera izan genuen.

Gainontzeko ekitaldietan, euririk baimena eman digunean, giro aparta izan dugu. Ekitaldi ezberdin asko izan ditugu eta adin guztientzako aukera ederra eduki dugula esan daiteke. Aurten umeen jokuetatik hasi eta azken trakara arte auzokide bako-



tzak bere tokia izan du festa hauetan.

Kanpoko jende ugari hurbildu zaigu, batez ere mus txapelketara eta nola ez zezenak ikustera. Eskertzekoa da beraz, festen antolakuntzan edota laguntzen egon direnei egindako lana. Aldaketa ugari jasan behar izan dituzte gure festek azken urteotan baina, bizirik dira eta denek disfrutatu ditugu pasa den astebukaeran.

Besterik gabe, jaiak agurtu ditugu datorren urterarte eta ea noiz ospatzen ditugun eguzkipean.

URDAIAGA

SARA LAZKANO

Oporrak itzaltzen ari dira



Hamaika hilabate igaro ondoren, egunero-ko errutinaren espiralak ia ia irentsi gaituenean, jada azken uda gogoratzeko soilik ere urrunegi dagoenean, eta orduan bakarrik, iristen da abuztua. Hainbeste eginbehar utzi, eta egin nahi direnak betetzen hasi orduko, eta egutegian bigarren aldiz begiratu aurretik, ordea, irailak

oporrak itzaltzen dizkigu. Eta oraindik ere haurren bat engainaturik ikastolara gustora abiatzen bada ere, irailaren lehen asteak gogorrak izan ohi dira berriz ere lanera itzuli behar izaten dutenentzat.

Askok beren nagia, eta iratzargailuarekiko haserrea "síndrome post-vacacional"aren atzean ezkututzen saiatu arren, eta besteek lankideen aurrean asmatutako opor zoriontsuak, inorenak baino hobeak izan direla sinestarazi arren, guztiongatik sentitzen dut, baina uda bere azken eguzki izpiak gatzatzen ari da, eta "Gaur Egunak" bero boladak uholdeengatik aldatu ditu.

Jada oroitzapen dira auzoko parkean eginiko bazkari zein afa-riak, edota tripazgora, eguzkitan, emandako orduak, eta baita ondorengo egunetako erreduak ere, irudi soil bihurtu dira San Estebanak ere, eta baita eguerdian hasi eta goizaldera amaitzen ziren egunak ere. Eta datozen hamaika hilabetetan, azken opor-rrak gogoratuz eta datozenak irudikatuz pasako ditugu makina bat ordu.... Bitartean, ongi etorriak zuen eguneroko bizitzara.

AGINAGA

M[^]ANGELES ARRUTI

Agurra eta ongi etorria



Trikitixa, bertso, aurreku eta abestiekin. Bai horrela ospatu genuen elizkizuna ilusio eta alaitasun handiarekin baina, gotzai jaunak esan zuen bezala "katea" ez da moztu eta gure arteko harremanak aurrera ere hor jarraituko dute. Jende asko bildu zen elizan eta pozik izango da Luis San Praixku eta hiletetan bezala eliza jendez beteta ikusteaz. Aspaldian ez zuen horrelako betekarik hartu elizak. Ez zenuen gutxiago merezi. Eta nola ez, ordezkotzan datorren Inaxio erretore berriak ere aukera izan du bere ibilbide berrian laguntzeko prest zenbat jende gauden ikusteko.

Esker ona adieraziaz herritar guztien aldetik opari asko izan ziren eta nola ez berak hezitako katekesiko haur eta gazteen aldetik ere bai. Afaria giro ezin hobean igaro genuen. Aloñak trikitixaz alaitu zigun gaua. Ane berriz mahaitik mahaira ez zen geldirik egon argazkiak atera eta atera bertaratu ginen guztioi.

Igandean berriz Ibaetan izan zenuen harrera eta han ere jende mordoa bildu ginen. Aginagatarrak ere han izan ginen eta zuk sortutako orkestak ere ez zuen galdu nahi izan zure ibilbide berriaren hasiera.

Gure artean izan dugun "altxorra", guk bezain ondo edo hobeto zainduko dutela Ibaetako herriak espero dugu. Gu ere saiatuko gara Inaxio erretore berria zaintzen eta gustura sentiarazten.

ZUBIETA

XABIER ARREGI

Nahiko da



Igande arratsaldea, Herri-Batzarreko kideak Ipankarta jartzen ari dira: "Alternatibak badaudelako, errausketarik ez! Ez hemen, ez inon". Baduzue meritua.

"Begira ezak frontoi barruan", esaten dit batek, "kuxidade ederra ikusiko duk!" Begiratzeko gogorik ere ez du ematen, lehen ere askotan ikusi dugu frontoia zabortegei bihurtuta. Amorrazioa ematen du. Lardaskatuko dituzte urbanizazioak, merke-zuhurrean egingo dituzte lokal publikoak, ahaztuko zaie papertegiak jartzea, ez dituzte behar bezala jarriko zaborrontzi selektiboak, bost axolako zaie gure ondasun publikoak zabar uztea, errebote plaza berritzeko ez dute dirurik izango. Ez dira gutaz akordatuko, nahiz bi udalak, Donostiak eta Usurbilek, hitzarmen bat egin omen duten zerbitzuak banatzeko. Zerbitzu-eza banatzeko izango da, seguru asko.

Ez dira gurekin akordatzeko, ez bada kartzelak, antenak, kuartelak, errauste-plantak, kamioi aparkalekuak, eta beste inork nahi ez dituenak guregana ekartzeko. Kapital urrutikoek Zubieta hartu dute beren proiektu sasikoen jomuga. Kapital hurbilekoak mutu daude, eta mutu dagoenak onartu egiten du. Errespeturik ez, babesik ez, ez hor eta ez han.

Zikina ekarri bai. Zikina garbitu ez. Horixe opa digutena. Hirugarren mailakoak izan, nonbait.

Datorren astean hasiko dira San Praixkuak

Prest da egitaraua. Prest, aginagatarrak eta bertara hurbilduko direnak ere. Prest dira denboraldiko inguru hauetako azken jaiak, 2006ko San Praixkuak. Datorren ostiralean, hilak 29, trikitalari eta bertsolariek lagunduta poteo batekin emango zaie hasiera jaiak. Hortik aurrera, bi asteburutan musika emanaldi, kirol erakustaldi edota oilasko biltzaileak tartekatuko dira. Urriaren 8ra arte, bertara joateko aitzakia ugari izango da.

Frontoia eta eliza zaharra. Eta bi guneak lotzen dituen bidea. Geldialdia egiteko Zahar Egoitza. Hiru gune horien inguruan izango da parranda giroa gau eta egun.

Oilasko biltzaileen eguna irailaren 30ean izango da. Gosaldurako ondoren, goiz osoko ibilbidea egin, eta bazkalordurako Sekañan bilduko dira. Arratsalderako futbol partida ikusgarria iragarria dute.

Preso eta errefuxiatuen eguna izango da urriaren 7an. Herri afariaren ondoren, gauerdian haien omenezko ekitaldia izango da.

Erromeri giroa nahi duzuela? **Laiotz, Irats, Izotz, Triki ta Ke** taldeak. Disko festak gustuko badituzue, **Larra** disko jartzaileak joera guztietako musika jarriko du irailaren 30ean. Astebeteren buruan, **Abiba Diskojaia**



URRIAREN 8AN, HERRI KIROLETAN
IBILIKO DIRA GAZTE ETA HELDUAK.

izango da *gogo* dantzariak eta guzti.

Bertsozaleak bazarete, urriaren 8an, **Peñagarikano**, **Mendiluze**, **Irazu** eta **Amaia Agirrerekin** duzue hitzordua. Botillero lanak egingo dituzte, herriko gazteek eta helduek herri kirolean indarrak neurtzen dituzten artean.

Kirolaz ari garela, ezin ahaztu urriaren lehenean Aginagan bilduko diren harri jasotzaile eta aizkolari ezagunak; **Aimar Irigoien** harri jasotzen. **Olasagasti**, **Etxebeste** eta **Peñagarikano** aizkora lanetan. San Praixku egunez jokatuiko dira, bestalde, Aginagako IV. Pilota Txapelketako finalak.

Jai egitarau osoa eta gainerako xehetasunak datorren asteke NOAUA!n.

Urrian, KzGunea goizez zabalik

Hil berria, ordu aldaketa. Urrian KzGunea goizez zabalduko da: 9:00-13:00 artean. Eskuragai da, gainera, Herritar Txartela, ordenagailu bidez administrazio publikoarekin zenbait tramitazio egiteko aukera ematen duen doako ziurtagiri digitala. Txartelak transakzioen segurtasuna, konfidentziasuna eta egiazkotasuna bermatzen ditu. Eskerak eta informazio gehiago KzGunean.

Elkarretaratzea Gudari Egunean

Gudari Eguna izango da datorren asteazkenean. Askatasunak, udaletxe aurreko plazan elkarretaratzera deitu du. Arratsaldeko 19:30etatik aurrera.

Bizkarreko mina hizpide, asteartean

Gure Pakea zahar egoitzak eta Kutxak hil honetan osasunarekin lotutako lau hitzaldi antolatu dituzte. Azkena, asteartean izango da. Bizkarreko minaren jatorria eta prebentzioa aztertuko ditu Michel Marmier Doktoreak gazteleraz eskainiko duen hitzaldian. Hitzordua: irailaren 26an, 19:00etan Sutegin. Sarrera doan.

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

txirriStra

KONTSEJU ZAHARRA TS
943 300 400

pintxoak
ogitartekoak
platea konbinatuak

TABERNA

Zendoia

Kale Nagusia 35 - 943 37 40 71

Urriaren 3an hasiko da Lurraldeko Lehen Mus Txapelketa

Irailaren 25ean amaituko da txapelketan izena emateko epea

Urtero bezala, iritsi da sagar berriaren uzta garaia gure inguruko baserrietara. Sagarrondoak gogor jo ondoren, sagarrak bildu eta lehenengo sagar zukuak ateratzeko garaia. Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkartek harrera egin nahi dio sagar uzta berriari Sagardoaren Lurraldeko Lehen Mus Txapelketa antolatuz. Buruntzaldeko herri guztiak sagardoaren eta musaren inguruan biltzeko asmoz.

Hala, Astigarraga, Hernani, Lasarte, Urnieta, Usurbil eta Andoaingo taberna desberdinetan jokatu da txapelketa eta hauetatik

irabazle ateratzen direnen artean, finalerako ligaxka eta final handia Usurbilgo Saizar sagardotegian jokatuko dira.

Irailaren 25a baino lehen

Gorde ezazu zure txokoa txapelketa handirako irailaren 25a baino lehen, **Ardibeltz** garagardotegian edota **Txiriboga** tabernan.

Txapelketa urriaren 3an hasiko da eta final handia, berriz, azaroaren 11n jokatuko da Saizarrenean.

Sari nagusia, 3.000 euro

Sari ikusgarriak ordagoaren zain dira. Bikote irabazleak 3.000 euro, txapela eta bazkaria jasoko ditu.



KANPORAKETAK ARDIBELTZEN
ETA TXIRIBOGAN JOKATUKO DIRA.

Bigarren geratzen den bikoteak, 1.200 euro eta bazkaria jasoko ditu. Hirugarrenak, 700 euro eta bazkaria. Laugarrenak, 300 euro eta bazkaria. Bosgarrenak, 200 euro eta bazkaria. Seigarrenak, 100 euro eta bazkaria.

Usurbilgo Dantza Taldea ere martxan da

Usurbilgo Dantza Taldeko kideak lanean hasteko prest dira. Izena emateko epea zabaldu dute. Talde ezberdinetako ordutegiak zehazteko, urriaren 6an bilera bat egingo dute Agerialden.

LH 1 mailatik aurrerako neska mutilek dantza talde honetan har dezakete parte.

Euskal dantza ezberdinak irakatsiko dira. Entseguetan ikasitakoa,

jendaurrean plazaratzeko hainbat aukera izango dira gainera. Herriko auzo ezberdinetako festetan, batez ere. Ikasturte amaieran irteera bat ere egingo dute. Izena eman nahi duten neska-mutilek ikastolan bertan egin dezakete. Urriaren 6an, talde ezberdinen ordutegiak zehazteko bilera egingo da Agerialden. 16:30ean hasiko da bilera hori. Egun horretan ere izena emateko aukera izango da.



URRIAREN 6AN UДАРREGIN EGINGO DEN
BILERAN ENTSEGU ORDUAK ZEHAZTUKO DIRA.



Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL



Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Zubietak, berriz ere, begipuntuan?

Hiri hondakinen inguruko eztabaidak ez du etenik. Azken hiru urteotan, maiz agertu da gai hau komunikabideetan. Irailaren 9an, titular hau irakurri genuen Berria egunkarian: "Koordinadoraren arabera, Zubietan jarriko dute Gipuzkoako errauste planta". Honen harira, Zubietako Herri Batzarrak prentsaurreko bat eskaintzea erabaki zuen. Irailaren 15ean, kazetari asko bildu ziren Alamandegin. Bertan, hiri-hondakinen inguruan eman diren azken albiste balarazioa egin zuten Imanol Azpiroz Zubietako alkateak eta Juanjo Olaizolak, Herri Batzarreko kideak.



GOI ZUBIETA BEZALA EZAGUNA DEN GUNE HONETAN AURREIKUSI DIRA KARTZELA ZEIN ERRAUSTE PLANTAREN BALIZKO KOKAGUNEAK.

Imanol Azpirozek adierazi zuenez, "Zubietak hasieratik esan zuen 'Erraustegirik ez, ez hemen eta ez inon' eta orain ere horri eusten diogu".

Zaborren kontuan, Zubietako Herri Batzarrak hasiera-hasieratik mamira jo zuela esan zuen. Alternatiba guztiak aztertu, konpostatzea aintzat hartu eta euren lankidetzak eskaini zutela gogorazi zuen Imanol Azpiroz Zubietako alkateak. "Bien bitartean, beste administrazio handi eta boteretsuagoak errauste sistema saltzen egin dute bere ahalegina, horretarako baliabide guztiak jarritz", esan zuen Azpirozek. Zentzu horretan, "politikoei eman duten espektakulua lotsagarria" izan dela adierazi zuen Zubietako alkateak: "interes politiko eta ekonomikoak aurretik jarriaz, hor ibili dira erraustegia batetik bestera bidaliz,

tartean, jakina, teknikoen iritzia goraipatuz. Oraingoan pelikularen beste atal bat eskaintzeko dena prestatzen ari dira, berritoki ere gezurra eskainiz".

Bien bitartean, Zubietak zaborra kudeatzeko bere lurraldea eskaini zuela esan zuen komunikabideen aurrean, "erraustu gabeko tratamendu biologiko baten bidez, Donostialdeko zaborren zati bat tratatzeko". Ez hori bakarrik, iaz, Añorgan eta Zubietan atez ateko bilketa-sistema ezartzeko proposamena ere luzatu zutela adierazi zuten Herri Batzarreko kideak. Donostiako CAMAn (ingurugiro arloko aholku batzorde modukoan) proiektua onartua izan zela baina gero ez dela ezertxo ere egin salatu nahi izan

zuen Imanol Azpirozek. Instituzioei zuzenduz, Gipuzkoan zaborra kudeatzeko erraustu gabeko modu alternatiborik inon jartzerik ez dutela nahi adierazi zuen Azpirozek. Honi lotuta, haxe gehitu zuen: "eurek egindako PIGRUGen filosofiaren aurka doaz. Nola pentsa dezakete erraustearekin hastea, aurretik Gipuzkoako inongo herritan ez badute materia organikoa suntsitu gabe berrera-biltzeko aukerarik frogatu?". Zubietan egiten ari diren lana azpimarratu asmoz, galdera hau luzatu zuen Imanol Azpirozek: "Gipuzkoako zein herri edo administraziook egin du gai honetan Zubietak adina ahalegin, gainera, inongo aurrekonturik gabe?".

Foru Aldundiaren esanetan, "Landarbaso ez da lekuri aproposena"

Uda baino lehen, Donostiako Udala Landarbasoko kokagunearen alde azaldu zen. Lehengo astean, ordea, Landarbaso ez dela toki egokia adierazi zuen Koldo Azkoitia Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluko bozeramaileak: «Azterketa teknikoak alde aurretik aurreikusi zitekeena berresten ari dira: Landarbaso ez dela lekuri aproposena errauste-planta jartzeko».

Errauskailua eta gertueneko hiriguneari arteko distantziak ere hitz egin zuen Azkoitiak. Aipatu izan da, gutxienez, bi kilometro egon behar dutela errauskailua eta gertueneko hiriguneari artean. Koldo Azkoitiak, ordea, hori gezurtatu egin zuen. Distantzia zaindu beharra dagoela esan zuen, baina era berean, errauskailua gertueneko hiriguneetatik, gutxienez, bi kilometrora eraiki behar

dela dioen araurik ez dagoela azpimarratu zuen.

Honen inguruan, Imanol Azpiroz Zubietako alkateak eskaera hau egin zion: "Azkoitia jaunari eskatuko nioke, mesedez, esan dezala egun indarrean dagoen legedian, zein artikulutan agertzen den errauste plantaren eta bizilekuen artean 2.000 metroko distantzia ez gordetzeko salbuespeneko aukera".

Imanol Azpiroz Zubietako alkatea

"Utz iezaguzue Zubieta antolatzen, baita zabor kontuetan ere"

Irailaren 15ean eskainitako prentsaurrekoan, Zubietako Herri Batzarreko kideek eskaera hau luzatu zieten diputazio eta mankomunitate guztiei: "utz iezaguzue Zubieta antolatzen, baita zabor kontuetan ere. Txikiak izan arren, horretarako gai garela demostratuko dugu".

Baina badira Zubietarekin loturik dauden bestelako kontuak ere. Prentsan ere jasoak izan direnak. Etxebizitza-egitasmoak edota kartzela berria. Hauek ere aipatu zituen Imanol Azpirozek: "Zubietaren suntsitu nahi duten proiektu erraldoi gehiago daudela salatu nahi dugu: kartzela erraldoia, 2.500 etxebizitza eta, orohar, Donostian soberan duten guztia gurera ekartzeko mehatxua. Hori al da Donostiako Hiriak Zubietarekiko duen zor historikoa kitartzeko modua?".

Legitimitatea bai, indarririk ez

Hiri hondakinen inguruko eztabaida izan zen hizpide nagusia. Baina gai nagusiari heldu baino lehen, Zubietak historian zehar izan duen izaeraz eta garrantziaz hitz egin zuen Juanjo Olaizolak. "Donostia bera baino zaharragoa" dela adierazi zuen kazetarien aurrean.

Herri Batzarreko kideak hauteskundeetan aukeratuak izaten direla ohartarazi zien kazetariei, "beraz, Donostiako eta Usurbilgo alkateek, edo Foru Aldundiko diputatuek duten legitimitate berbera" dutela aldarrikatu zuen.

Legitimitatea bai baina indarririk ez dutela aitortu zuen Juanjo Olaizolak, "Donostiako Udalak eta Usurbilgoak nahi ez dutelako. Hala ere, lanean gogor dihardugu".



IMANOL AZPIROZ ETA JUANJO OLAIZOLA, HERRI BATZARREKO KIDEAK.

Liburu bana kazetarientzat

"Zubietaren mila urteko herria" (Joxe Ramon Zubimendi, NOAUA!-2000. urtea) liburuari aipamena egin zion Olaizolak, eta kazetariei liburu bana emateko prest azaldu zen. Prentsaurrekoa eta gero, kazetari gehienek "Zubietaren mila urteko herria" liburuaren eraman zuten opari gisa.

Donostiako alkatearekin eta Foru Aldundiarekin biltzeko asmoa du Luismari Ormaetxeak, Usurbilgo alkateak

NOAUA! Koordinadoraren arabera, Foru Aldundiak Zubietan jarri nahi du Gipuzkoako errauste planta. Zein da albiste honen inguruan duzun iritzia? Usurbilgo udalak jaso al du honen inguruko informaziorik?

Luismari Ormaetxea, Usurbilgo alkatea. Usurbilgo udal-gobernuak herritar gehienak bezala jakin izan du Zubietako lurretan Donostiako udalak egin nahi dituen asmoen berri. Prentsa bitartez.

Eta herritar gehienak esaten dut, zeren badira zubietarrak honen berri zutenak. Gutxienez bat: Imanol Azpiroz. Hainbat alditan errauste plantaren kontrako taldeen kide edota

bozeramale bezala azaldu dena, eta Zubietako alkate pedaneo dena.

Personaje honek, hainbat alditan leialtasun ezaz Usurbilgo udala akusatatu du. Usurbilgo udalak erabakiak hartzen dituela Zubietako Junta (eta bera) kontsultatu gabe.

Eta alderantziz zer? Zubietari dagozkion gaiak ez al dira Usurbilgo udalarekin tratatu behar? Libre al da Donostiako Plan Orokorriari alegazioak sartzea Usurbilgo udala informatu gabe? Bizkarra emanez? Eta orain berriro! Donostiako udalaren asmoen berri jakin, eta Usurbilgo udalarekin hitz egin ez! Berarentzat hil-biziko gaia kontsideratzen duenean! Usurbilgo udalaren laguntza eske

etorriko zara, orain arte gurekin ezer jakin nahi izan ez duzunean?

Imanol Azpiroz: esplikazio asko zor dizkiozu zubietarrei. Informazioa herritarren kezka eta arazoak konpondu eta erantzuteko erabili behar duzu; eta ez, hirugarren mailako politika egiteko, autopromozioa egiteko.

Usurbilgo alkate honek bilera eskatu du, bai Donostiako alkatearekin, bai Foru Aldundiarekin prentsa agerturikoaren benetakotasuna noraino iristen den jakiteko asmoz.

Informazio guztia jaso bitartean eta baloratu bitartean Usurbilgo udal gobernuak ez du iritzirik plazaratuko.

70 urte eta gero

Hunkigarria. Beroa. Hala izan zen aurreko igandean Askatasuna plazan egin zen ekitaldia. Egun horretan bertan, 70 urte lehenago, indar frankistak iritsi ziren Usurbila. 70 urte eta gero, frankisten jazarpena, erbeste eta heriotza jasan zuten guztiei omenaldia beroa eskaini zitzaion.

Irailaren 17an omenaldi beroa jaso zuten 36ko gerra sufritu zutenek. Oholtza ondoan, lehen lerroan eseri ziren Pello Antonio Aranburu eta Manuel Goenaga, bizirik dauden bi gudariak. Aldamenean ziren gerran hildakoen senideak. Joxemari Izetaren bertsoekin hasi zen Aitzaga elkarteak antolatu zuen ekitaldia.

"Izan zaretelako gara"

Ondoren, Aranburu eta Goenagaren bilobek idatzi bat irakurri zuten. Segidan, Joseba Tapia eta Mertxe Oliden igo ziren taula gainera. Tapiaren "Agur Intxorta maite" disko-ko bi kantu eskaini zituzten. Beraientzat izan ziren txalo zaparrada handienak. Erail zituzten usurbilda-



"IZAN ZARETELAKO GARA" ESALDIA IRAKUR DAITEKE
ASKATASUNA PLAZAN IPINI DEN PLAKAN.

rrren senideei lore bana eskaini eta gero, Askatasuna plazan jarri den plaka aurkeztu zuten jendaurrean. "Izan zaretelako gara" esaldia irakur daiteke plakan. Plakaren irudiarekin osatutako oroigarri bana jaso zuten Manuel Goenagak eta Pello Antonio Aranburuk. Dantzarien saioarekin eta

"Eusko gudariak" kantuarekin amaitu zen Aitzaga elkarteak antolatutako ekitaldia.

Bertaratu zirenak, gainera, Andatzpe elkarteak prestatu zuten hamaiketakoaz gozatzeko aukera izan zuten.

IMANOL UBEDA



Jende ugari

Herritar asko hurbildu ziren Askatasuna plazara. Adi-adi jarraitu zituzten saio denak. Omenaldia eta gero, Andatzpe elkarteak prestatu zuen hamaiketakoaz gozatzeko aukera izan zuten.



Gerrako kantuak

Entzuleek txalo ugariz eskertu zuten Joseba Tapiak eta Mertxe Olidenek eskainitako saioa. Joseba Tapiak "Agur Intxorta maite" diskoan bildu zituen gerrako bi kantu abestu zituzten omenaldian.



Dantzarien agurra

Ekitaldiaren amaieran, plaka bat aurkeztu zen jendaurrean. "Izan zaretelako gara" lema du plakak. Plaka aurrean aritu ziren herriko dantzari gazteak. "Eusko gudariak" kantuarekin amaitu zen omenaldia.



Irailak hamazazpi

Mila beatzireun hogeitamasei
hamazazpiz Iraila
gure herrian zabaldu zuten
sufrimenen maratila
Bordatxoaldetik tropa frankistak
sartu ziren Usurbila
okupazio asmoak tinko
zaldi, karro ta fusila
geroztik hiru urte beltzetan
luzatu Gerra zibila
mehatxuz hartuak mila
ta hainbat frontean hila
gure omena ta oroimena
gertatu zenaren bila
jakin dezagun nondik datorren
historiaren gurpila

Sufrimendua ez zen bukatu
guda amaitu zenean
Ixiltasuna eta beldurra
gerraoste ilunean
hainbeste kontu eta pasarte
hiltzatuak barrenean
memoriari zor dioguta
hasi gaitezen lanean
gogo bihotzak jarri ditzagun
zuen ekarpen xumean
ez dauden izenean
eta zuen omenean
gogorra bezain gurea dena
hor bego oroimenean
izan gera ta izango dira
izan zineten einean

** Jose Mari Izetak bertso hauek
abestu zituen omenaldian.*

Bordatxora, Ikurriña jartzera

Askatasuna plazako omenaldia eguerdian ospatu zen. Aurretik, hainbat lagun Bordatxo mendira igo ziren. Frontoi atzetik abiatu eta aipatutako mendian ikurriña ezarri zuten.

Hain zuzen, egun berean baina 70 urte lehenago, 1937ko irailaren 17an, Bordatxotik barrena sartu

ziren tropa frankistak. Herriko historiarik beltzenean geratuko den data horretan, tropa frankistak Usurbila ailegatu eta herria hartu zuten.

Ikurriña tontorrean jarri eta gero, Askatasuna plazan egin zen omenaldia hurbildu ziren irudian ageri diren mendizaleak.

36ko gerrak Usurbilen eta inguruan izan zuen eraginari buruzko hitzaldia

Ken Loach zinegilearen “Tierra y Libertad” pelikulariari eskainiko duen hitzaldiarekin amaituko da Gerra Zibilari buruzko egitaraua. **Iñaki Egaña irailaren 21ean** ostegunez izango da **Sutegin**. 19:30ean hasiko den hitzaldian, gutako askorentzat ezezagunak izan daitezkeen eta herriari lotuta dauden zenbait datu eskainiko ditu Egañak.

“Gerra Zibila Usurbilen eta ingu-

ruan” izenburupean, Usurbilen eta aldameneko herrietan jazotakoaren inguruko hainbat xehetasun eman-go ditu.

Historialari donostiar honek hogeitaz liburutik gora plazaratu ditu. Ez dira gutxi hainbat komunikabideetan idatzi izan dituen artikuluak.

Ez hori bakarrik. Iñaki Egaña Arantzadiarekin elkarlanean ari da, garai hartan fusilatu zituztenen gorpuak aurkitu eta berreskuratze lanetan.

“Elkartasuna, etorkizuna” Baigorriin

Baigorriin ospatuko da aur-tengo Elkartasuna Etorkizuna jaialdia. Igande honetan izango da. Lurrealdean arteko hartu emanak sendotzea helburu duen topagunea bosgarrenez ospatuko da. Oraingoan, Ipar Euskal Herrian. Herrialde ezberdinetako zortzi kultur talde arduratu dira antolaketa lanez: Tuterako Beterri, Urduñarbeko Biltxoko, Añana Euskara Mingainean, Basauriko Sustraiak, Ezpeletako Ezpela, Iruñeako Orreaga eta Baigorriko Gaiteroak, Basaizea eta Ama ikastola. Horiekin batera dira Usurbilgo Nafartarrak kultur taldekoak ere.

Pasa den astean, antolatzaileek Iruñean prentsaurrean aurkeztu zuten ekimena. Haien esanetan, ez dute

jaialdi batera mugatu nahi. Taldeen elkarlana urte osoan zehar denek egin beharrekoa litzateke.

Igandean bertara joan nahi duzenak, autobusez joan zaitezke. Txiribogan izena eman dezakezue, 18 euroren truke. Garraiobide hori aukeratzan duzenok jakin ezazue Salbatore eliza ondotik irtengo dela goizeko 9:00etan.

Egitarau erakargarria

Hau da Baigorriko jaialdirako prestatu duten egitaraua:

11:00 Irudipuinak, Herriko Etxean, Ixabel Agirresarobe eta Iñaki Martiarena 'Mattin'-ekin.

12:00 Kalejira Baigorriko plazatik abiatuta, gaitero, txistulari eta buruhandiek.

12:30 Indar Joko erakustaldia, eta



USURBILEN OSPATU ZEN LEHEN EDIZIOA. BAZKARIAN 300 LAGUN BILDU ZIREN DUELA LAU URTE.

zintzur bustitze alaitua, elizako plazan.

14:00 Herri bazkaria, geltoki atzean, Ezpela txarangak alaiturik.

17:00 Taula gaineko ikusgarria, geltoki atzean: Usurbilgo txalapartari eta albokariak, Fermin Valentzia kantaria, dantzariak, bertsolariak, gaiteroak...

Abertzaleen Batasunakoekin solasaldia eta bazkaria

Irailaren 23an, Abertzaleen Batasunako (AB) bi kide hurbilduko dira Udarregi ikastolara. Aralar alderdiak antolatu duen ekitaldi honetan, Jean Mitchel Galant eta Ande Sainte Marie ABko kideek hartuko dute parte. Iparraldeko egoera, Iparralde zein Hegoaldearen arteko harremana eta Iparraldeko ezker abertzalearen bilakaera izango dira hizpide nagusiak. Ekitaldi honetan, Aralarreko ordezkariak ere hartuko dute parte, Patxi Zabaleta eta Aintzane Ezenarro, besteak beste. Hitzaldia Udarregi ikastolan egingo da eta eguerdiko 11:30ean hasiko da.

Solasaldia eta gero, bazkarian bilduko dira denak. Bazkaria ere Udarregin egingo da (prezioa, 20 euro). Izena eman nahi duenak Lontxo Zubiriarekin jarri behar du harremanetan.

“Nafarroako Erresumari” buruzko erakusketa Sutegin



Nafarroa: Euskal Estatua erakusketa astelehenean zabaldu zen. Hogei minutuko bideo emanaldian, erakusketan esekita dauden informazio paneletan ikusgai dena azaldu zen:

euskaldunen estatu izan zen Nafarroaren ibilbide historikoa. Erakusketaren ordutegia: astegunetan, 18:00-20:00. Larunbatetan, 12:00-14:00. Irailaren 30era arte zabalik izango da.

Denboraldi hasiera zaila futbol taldeentzat

Herriko futbol taldeak lanean dira berriz ere. Udako atse-denaldiaren ondoren 2006-2007 denboraldiari ekin diote eta hiru taldeek hasiera ona izan dutenik ezin da esan. 1. Errejonial mailako taldeak 2-1 galdu zuen Sanpedrotarra taldearen aurka eta jubenilek Oriokoren aurka 0-3 amore eman behar izan zuten. Nesken taldeak, aldiz, garaipena eta berdinketa lortu ditu orain arteko bi neurketetan.

Hala ere, emaitzak alde batera utzita, hiru talde hauek egoera onean entrenatzeko dituzten zailtasunak aipatu behar dira lehenik eta behin. Harane futbol zelaia eraberritu eta belar artifiziala jartzeko lanak atzeratzen ari dira eta Usurbil Futbol Taldeak aurre-denboraldian nahiz denboraldi hasiera honetan entrenatzeko arazo handiak ditu.

Hasiera batean, udalak irailaren hasierarako belar artifiziala jarrita egongo zela agindu bazien ere, oraindik futbol zelairik gabe daude futbol taldekoak. Iaz denboraldi osoan zehar Zubietako futbol zelaian jokatu behar izan zituzten etxeko neurketak hiru taldeek eta 1. Errejonial mailako taldeak Lasarte-Oria eta Hernanin entrenatu behar izan zuten.

Denboraldi hasiera honetan, ordea, egoera okerragoa da. 1. Errejonial mailako taldeak Donostiako Felix Garin futbol zelaia libre dagoenean bertan entrenatzen du egun eta ordu jakinik gabe eta Zestoaraino ere joan behar izan dute entrenatzera. Emakumezkoen eta



EMAKUMEZKOEN TALDEAK BANA BERDINDU ZUEN ANDOAINGO EUSKALDUNAREKIN.

1. Jubenileko taldeek, berriz, Oiardo kiroldegiko kanpoko areto futbol zelaian entrenatzen dute ahal duten moduan eta Harane futbol zelaian belar artifiziala jarri gabe badago ere, bertan entrenatu izan dute "galipot" gainean.

Honela bada, denboraldi hasiera honetako egoera tamalgarri honek bere eragina ere izan du. 1. jubenil mailako taldea futbol zelai handian ia entrenatu gabe azaldu zen Zubietara pasa den larunbatean eta 0 eta 3 galdu zuten aurtun futbol zelai berria estreinatu duten Oriokoren aurka. Herriko gazteek itxura ona eman zuten. Lehen zatian amaieran 0-1 zen emaitza, baina usurbildarrek emaitza hobea merezi izan zuten. Bigarren zatian ere antzeko zerbait gertatu zen. Gol aukera onak izan zituzten, baina ez zuten ate aurrean asmatu.

Emakumezkoen taldeak, berriz, 1-1 berdindu zuen Andoaineko Euskalduna taldearen aurka denboraldiko bigarren norgehiagokan. Herriko neskak 0-1 aurreratu ziren lehen zatian, baina azkenean ezin izan zuten lortutako abantaila hori mantendu. Honenbestez sailkapenean 4. postuan daude 4 punturekin.

Azkenik, 1. Errejonial mailako taldeak ezin izan zuten punturik lortu Sanpedrotarra taldearen aurka Trintxerpen jokaturako neurketan. Felipe Garmendia getariarrak zuzendutako taldeak 2-1 galdu zuen. Lehen zatia 1-0 amaitu zen eta bigarrenaren hasieran Unai Latailladek berdinketaren gola egin bazuen ere, azkenean esku hutsik itzuli ziren etxera.

JOSU ARANBERRI

Brontzezko domina Amador Granadorentzat

Amador Granado herriko txirrindulariak brontzezko domina lortu du Suitzako Aigle hirian jokatu den Ezinduentzako Munduko Txirrindulari Txapelketan. Pistan jokaturako kilometroko proban 3. postua eskuratu zuen pasa den iraila-

ren 12an eta berarentzat izan zen brontzezko domina. Errepideko proban, berriz, ezin izan zuten emaitza onik lortu, 69,6 kilometroko ibilbidea egin ondoren 12. postuan sailkatu baitzen irabazlearengandik ia lau minutura.



Egin kontu !!

Guraso Eskolak ikastaro ugari antolatu ditu

Ikasturte berriari begira, Guraso Eskolak eta Usurbilgo udalak ikastaro sorta antolatu dute. Denetariko gaiak jorratuko dira: memoria, dantzak, eskulanak edota sukaldaritza gaiak. Parte hartu nahi duzuenok, kontuan hartu: izen emateko egun bakarra izango da. Datorren asteazkenean, irailak 27, goizez 11:00-12:00 artean eta arratsaldez 17:30-19:30 artean. Horretarako, Guraso Eskolak duen egoitzara jo behar duzue: Txaramunto 1 helbidera, Zumarte Musika Eskola ondora.

Laboreak

Edukia: boliloak, gantxiloa... Urritik ekainera arte. Astean behin, bi ordu.

Saloi dantzak

Edukia: salsa, merenge, tango, rock...
Urritik ekainera arte. Astean behin, bi ordu.

Yoga

Edukia: luzaketak, arnasketak...
Urritik ekainera arte. Astean behin, ordu eta erdi.

Memoria lantzen

Iraupena: urritik aurrera, 12 aste.
Astean ordubete.

Sukaldaritza

Iraupena: azarotik aurrera, 6 aste.
Astean ordu eta erdi.



SEI ASTEKO IRAUPENA IZANGO DU SUKALDARITZA IKASTARDAK.

Pintura eta eskulanak

Iraupena: urritik ekainera. Astean behin, bi ordu.

Eguneko goardiako farmaziak

Irailak 21, osteguna
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Irailak 22, ostirala
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Irailak 23, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Irailak 24, igandea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Irailak 25, astelehena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Irailak 26, asteartea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Irailak 27, asteazkena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Irailak 28, osteguna
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Irailak 29, ostirala
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Irailak 30, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 1, igandea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

2006ko egutegi osoa: www.noaua.com

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55*/9:30(T)/13:15(T)/
14:35*(T)/19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
7:15*/9:00/12:45(T)/
13:45*/18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T)/12:45/
15:15(T)/21:35(T)

(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T)/14:30(T)/21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T)/13:30(T)/15:30(T)/
21:35(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T)/13:00(T)/15:00(T)/
21:00(T)

* Eskola egunetan.

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
TIF 36 21 64
USURBIL

ANTXETA
taberna-jatetxea
ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak
EGUZKITZA, 4 USURBIL - 943 370 344

ZUBIAURRENEA 4, USURBIL
i l e a p a i n d e g i
m i s t o a
943361951

ALBISTEAK EDIZIO JARRAITUAN • ALDIZKARIA ON LINE • INKESTAK • FORDAK • POSTA
www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

ETXEBIZITZA

- Usurbilen logela bat alokatzen da. Interesatuak deitu: 679185102.
- Usurbilen hiru logelako etxe bat alokatutzen da. Abala eskatuko da. 649261704.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tf: 630 032 779.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Galtzarañan 18,95 metro karratuko garaje itxia salgai. Interesatuak deitu 943361219 telefonora.
- Garaje itxita salgai, 18 m2. Merkea. Puntapax bidean. Telefono zenbakia: 610 29 18 64 (Carlos).
- 49 zm-tako Honada moto bat daukat salgai. Kondizio onetan eta modu onean. Interesatuak deitu 943364554 telefonora
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da, orduka zein egun osoz. 610 669 335.
- Asteburuan lan egiteko prest nago. Larunbat arratsaldeetan, igandeetan eta astelehen goizetan. 686 120 402.
- Esperientzia duen neska umeak zaintzeko prest. Edozein ordutan lan egiteko. Telefono zenbakia: 660 041 361.
- Emakume bat eskaintzen da 11:00etatik 13:00era etxeko lanak egiteko edota pertsona helduak zaintzeko. Telefono zenbakia: 659 89 90 40 / 943 365 737.
- Udan umeak zaintzeko prest nago. Telefonoa: 687 651 605.
- 17 urteko mutil bat naiz eta ekainetik irailera bitartean Usurbil eta inguruetan gustora lan egingo nuke. Eskaintzen bat baduzu deitu 650491552 telefono zenbakira.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularak ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientziadunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularak ematen ditugu euskaraz zein gaztelaraz. Interesatuak: 653711574.
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein mota-tako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. Telefono zenbakia: 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Olarrondo jatetxean astebukaeratan barran eta komedorean lan egiteko pertsona bat behar da. Deitu 943360376 telefonora.
- Pertsona bat behar dugu etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko. Lau ordutik, goizeko 7:30etik 11:30era. Telefono zenbakia: 943 37 06 91 (ilunabarrean deitu).
- Irailetik aurrera pertsona bat behar dugu Zubietan haur bat zaindu eta goizez etxeko lanak egiteko. 943 36 71 29 / 660 779 160.
- Jatetxe batean garbitasun lanak egiteko emakume bat behar dugu. Interesatuak deitu 943 36 27 13 telefonora.
- Arratsaldez etxeko lanak egiteko emakume baten bila gabiltza 645403905.
- Zarautzko malekoian udan lan egiteko zerbitzariak behar dira. 661972670.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Citroen Berlingo bat, kamara isotermikoduna kondizio honetan daukagu salgai. Interesatuak deitu 676453176 telefonora.
- Patri jatetxe inguruan urrezko (urre koloreko) pulsera bat aurkitu da. Galdu duenak udaltzaintzan galde dezala.
- Tren geltoki inguruan Nokia telefono mugikor beltz bat aurkitu da. Galdu duenak udaltzaintzan galde dezala.
- Snow egiteko tabla bat fizioekin salgai. 679185102
- Salgai paketeriako kamioneta 30.000km (10 hilabete). Tel: 666 871 914.
- Eskopeta salgai, Beretta Saut 303 modeloa, 6 puntuko txoke mugikorra. Oso egoera onean. Tel: 607457004, Dani.
- Larunbatean Puntapax 22-24 artean dortoka bat agertu zen. Udaltzaingoak jaso eta animalien babeslekura eraman du.
- Terrenoa landatzeko erosi nahi dut, edifikatzeko ez. Tf: 943 36 11 09.
- Antxumeak eta ibiltzeko zaldi bat saltzen ditut. Interesatuak deitu: 657633461.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. E-maila profesionala, modu onean. 617242660 / apore@euskalnet.net
- Telebista aldatzekotan bazara eta zer egin ez badakizu etxean daukazuarekin, gustora hartuko genuke. 943360321.
- Gazteentzat lokal bat alokairuan hartuko genuke. 667 694 049.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa, prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosi-ko nuke. Tf. 605 72 48 24

Txerrimunik ordainetan !



Zorionak Unai!

Lehenengo urtebetetzea egin duzu eta muxu handi bat eta besarkada bero bat Eider, amatxo eta aitatxoren partez. Zorionak!

Oharrak, Txerrimunik ordainetan doaneko atalak dira

Datorren alea: irailak 29.

Zorion-agurrak irailaren 25a baino lehen ekarri edo bidali.

erredakzioa@noaua.com

NOAUA! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20170 Usurbil

Telefono interesgarriak !

- Udala.....943 37 19 51
- Udaltzaingoa.....943 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak943 37 01 48
- Eusko Tren.....943 47 09 76
- Anbulategia..... 943 36 20 13
- Udarregi Ikastola..... 943 36 12 16
- Udarregi (Agerialde).....943 36 38 95
- Haur Eskola (Kalezar).....943 37 40 61
- Oiardo kiroldegia.....943 37 24 98
- Zumarte943 37 15 94
- Etumeta euskaltegia943 37 20 01
- Taxi geltokia.....943 36 21 78
- D.Y.A.943 46 46 22
- Gure Pakea.....943 37 32 28
- Gure Elkartea.....943 37 17 51
- Arrate Egoitza.....943 36 63 40
- Bake epaitegia.....943 37 23 36
- Oa farmazia.....943 37 60 76
- Iturralde farmazia.....943 36 33 95
- Zubietako Batzarra.....943 37 20 77
- Argindarra (Iberduero).....943 47 09 76
- NOAUA! aldizkaria.....943 36 03 21
- Ertzantza.....112
- Suhiltzaileak.....112
- Larrialdiak.....112
- Anbulantziak.....112

ABERASTU ZAITEZ! EGIN ZAITEZ BAZKIDE

NOAUA! Kultur Elkarteko
bazkide egiten bazara,
"Usurbilgo baserriak
eta baserritarrak"
liburua jasoko duzu doan



Usurbildarrentzat egindako aldizkaria

BAZKIDETZA ESKAERA

IZEN DEITURAK:

JAIOTZE DATA:

SEXUA:

NA ZENBAKIA:

HELBIDEA:

HERRIA:

POSTA KODEA:

BIZIBIDEA:

TEL:

E-MAIL:

BANKETXEA:

KONTU KORRONTEKO ZKIA (20DIGITOAK):

Bazkide KUOTA: 36 € (Uztallean kobratuko da kontu korrontetik)

elkartea@noaua.com • ☎ 943 360 321

JOSE AIZPURUA
UNANUE

TELATUAK • FATXADAK
Pintura kalera - 154. Jatorria-Ortu
943 36 12 83
Oribia kalera 14. Asteasu
943 69 68 02

URDANTZI

943 32 72 64
649 43 54 75
649 43 54 76

ERRAZKIN

943 372 679
943 365 125
629 420 565
649 435 470
urki-matxos@euskalnet.net

Josue
Aranzazistroki

943 360 550
606 372 105
JOSUE@NOAUA.COM

Antonio
URRIZOLA

Tel: 943 376 415
Faxa: 943 360 510
Asteasuain Industriakidea, 3

BEREZIARTUA
S.L.

egurra eta
egur-aluminiozko
leioak - eskailerak
Aginaga 943 371 571

BARRENETXE

Balkarrandi Arrozal. Imanol
Tel. 943 362 664
Faxa 943 374 002
Barreri Etxe Kalea
ZUBIEN

Javier
Orbegozo

Gasa-berokuntza
659 602 789
Emeka txiki 13, Bask

Jose txo
Ikatzeta

687 951 225

Lataillade

gasa, berogintza
klimatizazioak eta
mantenimendua
609 888 021

portularrume

Bainuko altzairuak
Manparak
943 364 637

JOSEBA
ARANGUREN

943 830 072
659 883 912

andoni
MARCOAK

605 702 517
Arrantzale p. 8-20

FERNANDO
PINTURAK

en papela ketak
lurzoruak...
943 366 019

IZAGIRRE

943 365 095
609 068 111
G012 ARGA ETXEA 37
KALEZAR

ARGILAN

Jose Luis Borda Zugasti
Industria normalizazioak kontu ketak
943 361 380
629 272 859
Borda Berri 5 lioia

gremioen gida

IGELTSERITZA

AROSTEGIAK

ITURGINTZA

PINTURAK

ELEKTROKITA

Gida honetan azaldu nahi baduzu: 943 360 321 • publizitatea@noaua.com